



***Egin dezagun presioa
euskal irakaskuntza publikoan
Lan Arriskuen Prebentziorako Legea
bete dezaten!***



ASANBLADAK

Hezkuntza Saileko langile guztiei segidan zehazten ditugun Asanbladetara etortzeko deia egiten diegu. Bertan Lan Osasunaren egungo egoera aztertuko dugu eta baita proposatzen ditugun presio neurriak ere.

Oso garrantzitsua litzateke gutxienez ikastetxe bakoitzeko pertsona bana kanpainan laguntzeko prest egotea, ikastetxera materiala heldu den konprobatzeko, Klaustroan edo Eskola Kontseiluan eztabaida bultzatzeko, taldekako edo banakako salaketak biltzeko eta kanpaina bultzatzen dugun sindikatuetara helarazteko.

ARABA

*Maiatzak 10, asteartea, 6etan
Koldo Mitxelena Institutuan, Errege Katolikoak kalea, z/g Gasteiz*

BIZKAIA

BARAKALDO

*Maiatzak 10, asteartea, 6etan
Nikolas Larburu Institutuan
Aldapa kalea, 3*

BILBAO

*Maiatzak 9, astelehena, 6etan
La Bolsa Kultur Etxean
Pelota kalea, Alde Zaharra*

IURRETA

*Maiatzak 11, asteazkena, 6etan
Iurreta Institutuan
Olaburu kalea, 19*

GERNIKA

*Maiatzak 12, osteguna, 6etan
Gernika Institutuan
Karlos Gangoiti kalea, 23*

GIPUZKOA

DONOSTIA

*Maiatzak 5, osteguna, 6etan
Usandizaga-Peñaflorida Institutuan
Felipe IV hiribidea, 1 A*

EIBAR

*Maiatzak 11, asteazkena, 6etan
Armeria Eskolan
Isasi kalea z/g*

ORDIZIA

*Maiatzak 9, astelehena, 6etan
Urdaneta LHI Intxausti kalea z/g*

**ZURE
LAGUNTZA
BEHAR
DUGU !**

Lan Arriskuen prebentzioaren egoera Hezkuntza Sailean

2005eko azaroan 10 urte beteko dira Laneko Arriskuen Prebentzio Legea onartu zenetik. Behar beste denbora da lege bat bete dadin, are gehiago administrazio publiko batez ari garenean. Urte hauetan guztietan sindikatuok saiatu gara Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko kudeatzaileak konbentzitzen lege hori bete dezaten. Legea betetzea enplegatzailearentzako legezko betebeharra izateaz gain, begi-bistakoa da beharrezkoa dela. Egungo errealitatearen errepasoak adierazten digu prebentzioa ez dela azaltzen hezkuntzako agintarien agendan ere. Eta bien bitartean, langileok lanpostuan osasuna galtzen diraugu: ahotseko arazoak, estresa, gihar eta hezurdurako minak (lunbalgiak, tendinitisak,..), alta goiztiarrak,... dira gure eguneroko ogia.

Honatx prebentzio-sistemako gabezia nagusiak:



ARRISKUEN EBALUAZIOA .

Ikasturteko 56 ikastetxetan egiten dira. Abiada honetan beste 10 urte behar izango genituzke

ikastetxe guztietan ezagutu ditzaten segurtasuneko ageriko arriskuak.



NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA PREBENTZIOKOAK.

Dagoeneko ebaluatu diren ikastetxe askotan antzeman diren arrisku egoerek konpondu gabe diraute. Eta nahiz eta egoera asko errepikatu dagoeneko aztertu diren ikastetxeetan, eta beraz, arazoa orokortzat har daitekeen, ikastetxe bakoitzeko ebaluazioa egin dadin itxaron gabe, ez dago prebentzio planik ikastetxe guztietan hauen aurka jarduteko.


IKASTETXEETAKO SEGURTASUN LAGUNTZAILEAK.

Hauen ordu-kreditua oso urria da, eta ez dakar eskola-kargaren murrizpenik. Gauzak honela, oso zaila dute ezer egitea, baina hala ere, inork ez die eskatzen zerbait egin dezaten, seguru aski, jakin baitakite ordu-krediturik gabe ez dagoela mirakuluak egiterik. Ez dute zeregin argirik, ez eta dagoeneko abian diren jardueraprotokoloen gauzatzean ere.



PREBENTZIO ZERBITZUA.

Zentroetako jardunaz egokiro ardura daitezen eta dinamiza ditzaten nahi badugu, logikoena maila ertaineko teknikari bat *Berritzegune* bakoitzean izatea litzateke; hau izanik beste gaietan ikastetxeei laguntza ematen dion unitate arrunta. Egun, EAE guztirako 7 besterik ez daude. Ez dira bete ere prebentzioko goi mailako lanpostu tekniko guztiak, ez eta aurreikusitako Osasuneko Oinarrizko Unitateak.



OSASUNAREN ZAINTZA. MEDIKU AZTERKETA

Legeak berariazko mediku azterketak egitea agintzen du lanpostu bakoitzean egon daitekeen arriskuen arabera. Prebentzio Zerbitzuak ahots arazoaren eta bizkar hezurreko lesioak azterketa egiteko protokoloak diseinatu ditu dagoeneko, baina ez dago inolako planifikaziorik aipatutako azterketa egiteko (hamaikatxo urtez itxaron egon barik). Oraingoz ez dago arrisku psikosozialeen eragina aztertzeke protokolorik (estresa, burnout, jazarpena,..); ez egotekotan, arlo honen arduradunik ere ez dagoelako.




LARRIALDIETARAKO PLANA.




Hezkuntzako Prebentzio Zerbitzua sortzean, Barne Sailak simulazioak gainbegiratzeko eta antzemandako arazoentxostenak egiten zituzten enpresak ordaintzeari utzi dio. Hezkuntzak dio Barne Sailak eutsi beharko diola zeregin horri. Kontuan da, batzuk ezin dutelako eta beste batzuk nahi ez dutelako, azkenean, inor ez da arduratzen dagozkion simulazioak eta txostenak egiteaz.

LANEKO ARRISKUEN PRESTAKUNTZA PLANAK LANGILEENTZAT.




Legeak behartzen du langileak presta daitezela lanari eragiten dioten arriskuez eta hauei nola egin aurre. Dena den, gai honetan egiten den prestakuntza-eskaintza oso mugatua da, eta ez dago planifikaziorik langile orori hel dakion bidezko epean.

LANGILEEN PARTE HARTZEA.



Prebentzio ordezkariak ez dute ez baliabide materialik, ez ordurkrediturik 700 zentrotan sakabanatutako 25.000 lagunentxostenak beharrei erantzuteko. Honez gain, zentro bakoitzean segurtasun eta osasun batzorde bat egon beharko luke zentroetako eta baita azpikontratutako enpresetako langile guztien parte hartzea berma dadin. Honela, guztion artean, zentro bakoitzean, mahaigainera litezkeen arazo guztiak azter ditzagun eta dagozkion irtenbideen inplementazioan parte har dezagun.

Ondorioa.



Erradiografia honen irudia oso kezagarria da. Begi-bistakoa da behintzat Hezkuntza sailean erabaki dezaketenen ez dutela arazo hau seriotasunez hartu.

Horrexegatik, ELA, STEE-EILAS eta LAB sindikatuok egoera honi 180 gradutako bira eman nahi diogu. Hezkuntza Sailaren ardura bere gain hartuko duen talde politiko berriak bere lehentasunen artean, laneko arriskuaren prebentzioa har dezan nahi dugu. Laneko Harremanen Prebentzio Legeak ezartzen dien betebeharrak, milaka pertsonen enplegatzaile eta ikasleen segurtasun arduradunak izanik, ez betetzeari utz diezaioten.

Helburu hauek gauzatzearren, sindikatuok egin ditzakegun salaketez gain, langile eta ikastetxeetako laguntza behar dugu. Kudeatzaile berriak Klaustroetan edota Eskola Kontseiluan onartutako ehunka salaketeekin eta langileen milaka salaketeekin topa daitezela nahi genuke. Eta kudeatzaile berri horiek ez ditzaten gure salaketak zuzenean zakarrontzira botatzeko tentaldirik izan, eraman ditzagun aipatutako salaketak Lan Ikuskaritzara eta Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundera (OSALAN): bi erakunde hauei baitagokie lan arriskuaren prebentzio arloan legeria betetzeko zaintza. Honekin batera doakizue salaketak egiteko inprimaki-eredua.



Administrazio publikoei eginiko salaketa funtsezkoa bada gure zeregina segurtasun eta osasunez gara dadin, ez dugu ahaztu behar ere lantokian bertan darabilgun esku hartzea indartu behar dugula. Langileak benetan nahas daitezela honetan egin beharko dugu: osasuna galtzen dugun lekua ezagutu, lantoki berean salatu egoera hau eta lankideei zein ikastetxe berari jakinarazi.

Ezin dugu kexuka isilean iraun. Ez gaitzezke fida hezkuntza agintaritzari berria berak aurrekoek izan ez duten ardura edo jarrera izango dutenik. Hauen mahaiak salaketez eta ikastetxeak borrokez eta planteamendu zehatzez bete behar ditugu (duintasunez eta segurtasunez lan egin dezagun). Gure ahotsa ezagutarazi behar dugu. Jakin dezaten langileok egoera honekin aspertuak gaudela. Gure segurtasun eta lan-osasun eskubidearen alde egin behar dugu.

ELA, STEE-EILAS, LAB

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilari andreari.**
- OSALANeko Zuzendari Nagusiari.**
- Laneko Lurralde-idazkaritzari (Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza)**

<input type="checkbox"/>	_____	ko Eskola
	Kontseiluak eta bere izenean _____	
	jaun/andrea.	
<input type="checkbox"/>	_____	<i>ko Klaustroa eta</i>
	<i>bere izenean _____</i>	
	<i>jaun/andrea.</i>	
<input type="checkbox"/>	Beheko sinatzailea, _____	
	_____	jaun/andrea, Eusko Jaurlaritzako
	Hezkuntza Saileko langileaa, honen lanpostua _____	
	_____ ikastetxean izanik	

NAN _____ eta jakinarazteko helbidea:

Helbidea: _____
 _____ Herria: _____ P.K.: _____ Probintzia:
 _____ izanik,

Zure aurrean aurkezten da, eta zuzenbidez egoki den moduan, ondoren adierazten diren gertakariak SALATZEN DIZKIOT erakunde horri: (azpimarratu egoki den modua).

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ikastetxe honen jabea, ez du egin ikastetxeari dagokion Lan Arriskuen Ebaluaziorik, eta ez dago inolako aurreikuspenik etorkizun hurbil batean egiteko ere.
- Hezkuntza Sailak ez dio ekin inongo Prebentzio Planari antzemandako arriskuak zuzentzeko (adierazi arriskuen ebaluazioa egin bada ikastetxean).
- Hezkuntza Sailak ez dio ekin Osasuna Zaintzeko inongo Planari.
 - Ikastetxeko pertsonalari ez diote Mediku Azterketarik egiten aldiro. Egin zen azkena izan zen:
 - orokorra, _____. urtean.
 - berariazkoa, lanpostuko arriskuen arabera, _____. urtean.
 - Izenpetzen duen honi ez diote Mediku Azterketarik egiten aldiro. Egin zidaten azkena izan zen:
 - orokorra, _____. urtean.
 - berariazkoa, lanpostuko arriskuen arabera, _____. urtean.
- Aurtengo ikasturtean ez da larrialdietarako planik egin.
- Ez da Ebakuazio-simulaziorik egin ikastetxean _____. urteaz geroztik.
- Ez da ebakuazio-simulazioan antzemandako akatsen txostenik egin _____. urteaz geroztik.
- Ikastetxeko ebakuazio plana ez dago eguneratua.

- Ez dit inork jakinarazi Ebakuazio Plana dagoela ikastetxean.
- Ez dago lan arriskuen prestakuntza-planik sailaren menpeko pertsonalarentzat.
- Ikastetxeko pertsonala ez dute berariaz prestatu jasaten dituen lan arriskuei dagokienez.
- Ikastetxeko Segurtasun Kolaboratzaile gisa izendatuak ez du behar besteko ordu-krediturik zereginari ekiteko..
- Prebentzio Zerbitzuko teknikari-kopurua ez da behar bestekoa.
- Ez da betetzen Lantokiei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 Errege Dekretua:
 - 50 langile baino gehiagoko ikastetxea izanik, ez dago botikinik, ohatila eramangarririk, iturririk, ez eta ohatilak eroso sartzea bideratuko duen lehen zaintzako gelarik.
 - Haurdun dauden langileek eta bular-emaileek ez dute etzanda egokiro atsedena hartzeko aukerarik.
 - Aldagelak, bainu-gelak, dutxak, komunak... dagokien erabilpenerako baino, bestelako zereginetarako ere erabiltzen dira.
- Salatzen den beste egoeraren bat: _____

KONTUAN HARTUZ salaketa-gutun hau eragiten dituen egoera indarrean dagoen Lan Arriskuen Prebentzioko araudia ez-betetzea dela, ESKATZEN DUT, erakunde horrek, egoera zuzentzearren, lege, teknika eta antolamenduko neurriak har ditzala..

_____ (e)n, _____ -(e)ko _____ -(r) en _____ -(e)an

Sin.: _____

Nora bidali salaketa:

- **Hezkuntza sailburua.** Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
- **OSALANgo Zuzendari Nagusia.** Camino de la Dinamita zk/gb Barakaldo
- **Lan ikuskaritza**
 Araba: General Alava, 10, 01005 Vitoria-Gasteiz
 Bizkaia: Gran Vía, 50 48011 Bilbo
 Gipuzkoa: Podavines, 1, 20010 Donostia

Bidali kopia bat kanpaina egin duen sindikatu sustatzailereren bati:

- **ELA** Araba: Manuel Iradier, 25 behe, 01005 Vitoria-Gasteiz
 Bizkaia: Barrainkua, 13 48009 Bilbo
 Gipuzkoa: Consulado, 8 Solairua, behe. 20014 Donostia
- **STEE-EILAS** Araba: Fuentes de los Patos plaza, 2-3.C 01001 Vitoria-Gasteiz
 Bizkaia: Nikolas Alkorta, 3, 13. lonja 48003 Bilbo
 Gipuzkoa: Urbieta 40-1. esk. 20006 Donostia
- **LAB** Araba: Bueno Monreal, 16 behe 01001 Vitoria-Gasteiz
 Bizkaia: Egaña 8 behe 48009 Bilbo
 Gipuzkoa: San Blas, 1 behe, 20013 Donostia